

FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektu bat aurrera atera dadin, hainbat baliabide eta, era berean, funtsezko hainbat jarduera behar dira. Horregatik, funtsezko jarduera hauek hautatu ditugu, gure proiektuak aurrera egin dezan.

❖ **Tailerrak:**

Beharrezkoa ikusten dugu egoeraren kontzientziakzioa egitea, era honetan jendeak egoeraz jabetu egingo da eta gure zerbitzua erabiltzen hasiko da. Hau lortzeko era desberdinetako tailerrak burutzea ezin bestekoa da. Hala nola; musukoaren erabilera eta hauen iraungitze dataren inguruko tailerra, ekologismoaren inguruko tailerrak, birziklatzearen tailerrak, besteak beste.

❖ **Birziklatzea:**

Gure proiektuan ezinbestekoa da, musukoak birziklatzeko; gure zerbitzua horretan datza batik bat. Hau da, publikoari eskaintzen diogun zerbitzua musukoen gomak berrerabiltzeko da, eta horrek, jendea musukoak birziklatzera eramaten du gure zakarrentzi espezialera botatzean, beraz, birziklazioari esker asmatu dugu gure proiektua, eta honekin batera, kutsadura murrizteko mundu hobe bat mantendu ahal izateko.

❖ **Publizitatea (folletoen banaketa):**

Gure zerbitzuaren publizitatea egitea erabaki dugu folletoen bitartez. Folleto asko eskaintzen saiatuko gara, gure proiektua ezagutzeko aukera inork ez galtzeko. Horrela, publizitatea eginez, gure proiektua jende askorengana iritsiko da, hau da, lehen esan dugun bezala ezagutzera ematea lortu dezakegu.



